

BIZIAN GORA ZEANURIN

Doinua: "Uso zuria"

1

Urteen joan beharra
aintxinako lege zaharra.
Bizi nazala esan gura dau
hau ez da albiste txarra,
neure burua landutea da
gaurko ardura bakarra.

2

Garizumako giroan
hauxe darabilt gogoan:
Hartu Untzino santua eta
pozik bizi luzaroan,
gauza hoberik ez da izango
kristau baten zahartzaroan.

3

Untzinoaren indarra
dago babestu beharra.
Horregaitik gaur aukeratu dot
Bizian Gora batzarra;
zaharren barrua sendo zaintzeko
hau ez da botika txarra.

4

Behin jubilatatu ezkerro
gure balioa zero...
Ez dot onartzen, ni ez naz behintzat
talde horretan bezero;
ahal dodan ona egiten jarrai,
jolasean baizen bero.

5

Nik ez dodala balio?
Sartu naz boluntario.
Handik aurrera nire bihotzak
irribarrea dario;
ez neuke izan nahi traste zaharrez
betetako armario...

6

Hartu dogu Untzinoa
eta agur funtzinoa?
Jubiladutza ez da alperrik
galtzeko okazinoa,
ondo bizi ta on egiteko
jaso dot bokazinoa.

7

Mila traste ta trastuak
dira gaur birziklatuak.
Eta zelan ez gu birziklatu
pertsonek jubilatutakoak?
Holakoren bat dauken etxeak
benetan bedeinkatuak!6/

8

Oraindik ez da azkena,
etorteko da onena.
Aitita-amamok zaindu daigula
aurrekoen sinismena,
horregaitik da hain ezaguna
zeaniztarren izena.

9

Gorbeia mendi gainetik
Jesus deika Gurutzetik:
Zeaniztarrok, ez naizuela
baztatu zuen artetik,
baietz garbia entzun nahi neuke
jubilatuen partetik.

10

Zeaniztarrak bizi nahi,
nahi ez dauanak dauko jai.
Fede-bizitzan birziklatzeko
hemen guztiok gara gai;
Bizian Gora laguntzen dator
ta erantzun deiogun: BAI.

A.Martzel

